

HiztegiBar Chrome

Eskuliburua



Egilea:



ingeniaritza
ELEKA
linguistikoa

www.eleka.net

HiztegiBar Chrome


| | |
|------------------------------|---|
| Eskakizunak eta oharrak..... | 3 |
| Instalazioa..... | 3 |
| Erabilera..... | 4 |
| Bilatzailea..... | 4 |
| Hobespenak..... | 5 |
| Orokorra..... | 5 |
| Hiztegien aukera..... | 5 |
| Kontsulta Aurreratua..... | 5 |
| Hiztegiak..... | 5 |
| Estatistikak..... | 5 |
| Desinstalatzea..... | 6 |

Eskakizunak eta oharrak

HiztegiBar Chrome ez du eskakizun berezirik, nahikoa da *Google Chrome* nabigatzailea instalatua edukitzea.

Instalazioa

Hona hemen instalazioa burutzeko egin beharreko urratsak:

- 1.: *HiztegiBar.zip* artxiboa deskonprimitu, eta zure ordenagailuan ezabatuko ez den leku batean gorde.
- 2.: *Google Chrome* ireki.
- 3.: Luzapenen web-orria kargatu. Hori egiteko, bi aukera daude:
 - a. *Chrome*ko  ikonoan klik egin (goian, eskubian), eta aukeratu **Tools > Extensions** (*Tresnak > Luzapenak*).
 - b. *Chrome*ko helbide barran **chrome://extensions** idatzi.


 Developer mode

Goian eskuinean **Developer mode** (*Garatzaile modua*) agertuko da; + ikurrarekin agertzen bada, klikatu gainean aukerak zabaltzeko; - ikurrarekin agertzen bada, aukerak agerian daudela esan nahi du.

Extensions

Developer mode:


Egin klik **Load unpacked extension** (*Deskonprimitutako luzapena kargatu*) botoiaren gainean, eta arakatu ordenagailuan gordetako *HiztegiBar* karpeta. Aukeratu, eta 'Ireki' edota *Enter* sakatu.

Luzapena ondo badago, panelaren eskuineko aldean agertuko da  *HiztegiBar*ren ikonoa. Gainean klikatuz gero, menua irekiko da.

Erabilera

Bilatzailea

HiztegiBar erabiltzeko lehen urratsa hizkuntza bikotea aukeratzea da. Horretarako, klikatu hizkuntzen zerrendan, eta aukeratu zein hizkuntzatik zein hizkuntzara itzuli nahi duzun:



Oharra: kontuan izan hiztegi bakoitzak hizkuntza-bikote jakin batzuetan funtzionatzen duela bakarrik.

Ondoren, sar ezazu itzuli beharreko hitza *HiztegiBar*reko testu-kutxan.

Emitza ikusteko bi era daude:

- *HiztegiBar*reko hiztegien botoietan klik eginez.
- Kurtsorea testu-kutxan dagoenean *Enter* tekla sakatuz. **Hobespenak > Kontsulta aurreratua** fitxan markatutako hiztegi guztiak batera kontsultatuko dira – bakoitza bere fitxan erakutsiko da.

Oharra: Euskarazko hitz bat bilatzerakoan, lematizazioa egiten da. Hau da, nahiz eta “euriarekin” hitza begiratu, hiztegietan “euri” kontsultatuko da.

Hobespenak

Orokorra

Orokorra fitxan, programaren propietateak alda daitezke.

Hizkuntza:

- Interfazearen hizkuntza: interfazea zein hizkuntzatan erakutsiko den definitzen du, euskaraz edo gaztelaniaz.
- Hizkuntza-bikotea: defektuz aukeratutako hizkuntza bikotea. Ondoko hauek izan daitezke: EU►ES, ES►EU, EU►FR, FR►EU, EU►EN, EN►EU, LA►EU edo EU►JA.

Fitxen hobespenak: Fitxen konfigurazioa ezartzeko aukerak.

- Fitxak berrerabiltzeko aukera.
- Fitxak atzeko planoan irekitzeko aukera

Hiztegien aukera

HiztegiBarren kontsultarako erakutsi nahi diren hiztegiak azaltzen dira. Zerrenda horretan hautatuta dauden hiztegien botoiak bistaratuko dira.

Kontsulta Aurreratua

Atal horretan, bilaketa egin eta *Enter* tekla zapaltzerakoan zein(tzuk) hiztegi kontsultatuko d(ir)en ezarriko dugu. Hiztegi bakoitza fitxa batean erakutsiko da.

Hiztegiak


Jasotako hiztegien zerrenda osoa agertzen da. Zerrenda horretako hiztegiak kontsulta daitezke zerrendako elementu edota estekaren baten gainean klik bat eginez; dagokion orri nagusia irekiko da.

Estatistikak

Atal honek hiztegi bakoitzean egindako kontsulta kopurua erakusten du.

Desinstalatzea

Bi eratara desinstala daiteke:

- a: HiztegiBar desinstalatzeko, Chrome-ko  ikonoan klik egin, eta aukeratu **Tools > Extensions** (*Tresnak > Luzapenak*).
- b: *HiztegiBar* gehigarriari dagokion atalera joan, eskuineko botoia sakatu, eta desinstalatzeko aukera sakatu (*Uninstall*). Horrela, *HiztegiBar* gure sistematik kenduko dugu.